
ZUMARRAGAKO PARROKO OHIA DONOSTIAKO GOTZAIN

·Zuek bai jakin!: Armando Arizmendiarrieta **·Elkarrizketa:** Joseba Iturbe **·Izerdi patsetan:** Aitor Alberdi **·Boteprontoan:** Alex Areizaga

Herri Aldizkaria

Otamotz

2009ko
azaroa
151. alea



PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

GURE LANAK PREBENTZIOA DU HELBURU



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
☎ 943 72 41 00
e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarrieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

04 **Hilabete honetako gaia**
Zumarragako parroko ohia Donostiako gotzain

12 **Komikia / Egurra partitzen**

13 **Zenbat buru, hainbat aburu**
Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzain izendatu dute.
Zer iruditzen zaizu?

14 **Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**

15 **Gure gomendioa**

16 **Klik eta klik**
Gotzon Aranburu

18 **Zuek bai jakin!**
Armando Arizmendiarrieta: Bizipozari eutsi zion gerrako haurra

23 **Argazki zaharra**

24 **Elkarrizketa**
Joseba Iturbe: "Umetan txarangaren atzetik ibiltzen nintzen"

26 **Izerdi patsetan**
Aitor Alberdi: Goi mailako kirolarien prestatzaile

28 **Gure aholkuak**

29 **Literatura**

30 **Boteprontoan**
Alex Areizaga

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Zumarragako erretore ohia Donostiako gotzain

Behingoagatik, zurrumurruek funtsa zuten: Zumarragako El Salvador parrokian erretore izandako Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzain izendatu dute. Askoren ustez ultrakontserbadorea eta abertzaletasunaren aurkakoa da eta bere izendapenak zalaparta itzela sortu du. Albistea pozez hartu duten fededunekin eta tristuraz hartu dutenekin hitz egin dugu.



Jose Ignacio Munilla, gotzain jantzita, Zumarragara egindako bisita batean. Argazkia: www.loiola.org

Jose Ignacio Munilla Agirre Donostian jaio zen 1961ean. Intxaurrondon igaro zuen haurtzaroa eta udak amaren baserrian ematen zituen: Zestoako Aitzarnan. Mundaizko Anaia Korazonisten ikastetxean egin zituen ikasketak eta ondoren Toledoko apaizgaitegira joan zen. Prestakuntza Donostian bukatu zuen. Bertan ordenatu zen presbitero 1986an.

Zumarragara bidali zuten: Andre Maria Jasokundekoaren parrokian apaiz lagunkide izan zen 1990a bitartean. Urte honetako uztailean El Salvador elizako parroko izendatu zuten eta bertan lan egin zuen 16 urtez. Lagun asko egin zituen eta gazte asko elizara hurbiltzea ere lortu zuen. Dena den, bere inguruan hainbat polemika ere izan ziren. Ezker abertzaleak, adibidez, behin eta berriro salatu zuen parrokia berria Zumarragako Arau Ordezkatzaileek agindutakoaren aurka eraiki zela. Bestalde, gertakari bat salatu ondoren epailearen aurrean deklaratu nahi ez izanak ere zeresan handia eman zuen.

Hauek guztiek ez zuten bere irudia kaltetu, nonbait, 2006an Palentziako gotzain izendatu baitzuten. Orduan jada lehenago edo beranduago Donostiako gotzain izateko itzuliko zela aipatu zen. 2008ko uztailean Juan Maria Uriarte apezpikuak 75 urte bete zituen eta karguari uko egin behar izan zion. Hautagai guztien gainetik Munilla azaldu zen. Gipuzkoako eliza gehienetan kezkaz jaso zuten albistea eta azken asteotan gaia puri-purian izan da: bai komunikabideetan eta bai kalean. Markel Olano Ahaldun Nagusia bera Munilla izendatzearen aurka azaldu da.

Komunikabide abertzaleetan Espainiako gotzain-batzarreko presidenteak, Rouco Varelak, Munillaren aldeko apustu irmoa egin duela eta azkenean Vatikanok donostiarra izendatzea lortu duela aipatu da. *Gara* egunkariak, adibidez, Uriarte beste batzuen alde azaldu dela aipatu da: Roger Etchegaray kardinal ezpeletarra adibidez.

Izan ere, Gipuzkoako fededun askok eta askok ez dute begi onez ikusten Munilla. Ultraeskuindartzat jotzen dute eta euskal abertzaletasunaren aurkakotzat ere badute.

Egiari zor, Munillak sekula ez ditu bere ideiak ezkutatu. Abortuaren eta homosexualitatearen aurka argi hitz egin du beti. Komunikabideetan bere iritzia ematea atsegin du eta, hala, bere anaiak zuzentzen duen *Radio Maria* irratian saio bat izan du duela gutxi arte. Bestalde, hainbat komunikabidetan ere esku hartzen du. Besteak beste, *COPE*, *ABC* eta *Fe y Razón* izenekoetan.

Dena den, bere iritzia ezagutzeko modurik onena www.enticonfio.org blogean sartzea da. Bere bloga da eta bertan Munillak idatzitako hamaika testu irakurri daitezke. Izenburuetako batzuk oso esanguratsuak dira: *Manda el porro a la porra*, *El aborto tiene muchos cómplices*, *Curar enfermos, pero sin eliminar a nadie*, *Casados ¡mucho mejor!*, *Despedida de 'El Diario Vasco'*...



Palentziako gotzain egin zuten egunean Anton Arbulu Zumarragako alkate ohiarekin.

Andre Maria Jasokundekoaren parrokian apaiz lagunkide izan zen eta ondoren El Salvadorren parroko

Aldekoak eta kontrakoak dituen gotzaina: batzuentzat zintzoa eta langilea eta besteentzat atzerakoi hutsa



Jose Ignacio Munilla El Salvador parrokian. Argazkia: www.loiola.org

Jose Ignacio Munillak lagun asko egin zituen El Salvador auzoan. Tartean Inazio Ibarluzea eta Mari Carmen Aranzadi senar-emazteak. Ibarluzeak eta Aranzadik "oso pozik" hartu dute izendapenaren albistea. "Gertu nahi dugu. Lehenbailehen etortzea nahi dugu. Nik horrelaxe sentitzen dut, nahiz eta beste askok beste gauza batzuk esango dituzten", aipatu du Aranzadik.

Bere izendapena Gipuzkoarentzat ona izango dela uste du. "El Salvador parrokian 16 urte egon zen eta gu oso gertu ibili ginen. Pertsona zintzoa eta langilea da nire ustez. Norbaiti lagundu ahal baldin badio, hala egiten du. Bere inguruan ibili izana asko eskertzen dut", gehitu du.

Aranzadik ez du uste gotzain berriak abertzaleen aurkako jarrera duenik. "Munilla ez da horretan sartzen. Abertzalea ez da izango, baina kontra ere ez du egingo. Egia esan, ni abertzalea naiz eta berarekin beti oso ondo moldatu naiz. Ez dut uste inori kalterik egingo dionik. Abertzaleei ere ez. Denei on egiten saiatuko da. Bere inguruan ibili nintzenean ikusitakoaren arabera esan dezaket hori. Goiko parrokiako asko nire iritzi berekoak dira".

Berak eta bere senarrak eliza berriaren eraikuntza lanetan lagundu zuten. "Garai hartan katekista nintzen eta, senarra erretiratu berria zenez, laguntza eskatu zigun. Oraindik senarra arduratzen da parrokiako mantenu lanez. Eraikuntza lanak gertutik jarraitu zituenez, eliza hori berea sentitzen du. Nik, ordea, maiatzean utzi nuen katekista lana".


Munilla ere dagoeneko ez dago bertan, baina arrastoa utzi omen zuen. "Asko irakatsi digu eta asko zor diogu. Mila gauza irakatsi dizkigu. Denon artean ondo konpontzeari, adibidez, garrantzia handia ematen zion. Katekisten arteko harremana asko zaintzen zuen. Oso saiatua zen".

Inazio Ibarluzea senarra ere iritzi berekoa da. Berak ere El Salvador auzoko parroko ohiari buruz hitz egin du, nahiz eta izendapenaren inguruan sortu den polemikak ez dion graziarik egiten. "Eztabaida handia sortu da, baina ni bere lagun handia naiz. Pertsona bikaina da eta kontatzeko moduko anekdota asko ditut".

Horietako baten berri emateko eskatu diogu. "Palentziako gotzain izendatu ondoren, oraindik hemen zegoela, biok garabira igo ginen eta parrokiako kristalak garbitzen aritu ginen. Dagoeneko gotzaina zen! Horrek argi eta garbi uzten du gizon langilea dela. Asko balio du". Parrokia eraiki zen garaian denbora luzea eman zuten elkarrekin. "Hamaika irteera egin genituen: azulejoak erostera, kanpaiak begiratzera...".

Ibarluzeak pertsona bikaina dela dio. "Askok kritikatu egiten dute, baina nik ez dut politika kontuetan sartu nahi. Pertsona zintzoa eta langilea da. Dena eman du jendearen alde. Adiskide minak ginenez, behin Opusekoa ote zen galdetu nion. Inondik inora ere ez zela erantzun zidan", gehitu du.

Berak eta emazteak ez dute oraindik


Jose Ignacio Munilla El Salvador parrokiaren kanpoaldean. Argazkia: www.loiola.org

Donostiako gotzain berriarekin hitz egin eta ez dute erabaki kargu hartze ekitaldira joango diren. "El Salvador parrokiako apaizak Donostiara joateko autobusa jarriko duela esan du. Beharbada animatuko gara. Ekitaldia urtarrilaren 9an izango da, Artzain Onaren katedralean", azaldu du Mari Carmen Aranzadik.

Egun horretatik aurrera gotzain berriari "sufritzea ere" tokatuko zaiola uste du. "Denekin harreman ona izatea kosta egingo zaio, baina inork lortzekotan berak lortuko du. Bere gertu ibili garen guztiok pertsona aparta dela eta denekin ahalik eta harreman onena edukitzeko ahalmena duela uste dugu", azaldu du zumarragarrak.

Ez du uste Gipuzkoako elizetako lan egiteko modua goitik behera aldatzera datorrenik. "Bakoitzak bere ukitua ematen dio bere lanari, baina ez dut uste aldaketak kolpetik egingo dituenik. Gauzak polikipoliki eta denekin hitz eginez egingo ditu", amaitu du.

Ibarluzeak eta Aranzadik hitz onak besterik ez dituzte Munillarentzat, baina beste askok ez dute begi onez ikusten bere izendapena. Dena den, Gipuzkoako apaiz asko ez dira komunikabideei euren iritzia ematera ausartzen eta ematen badute anonimatua mantentzea eskatzen dute.

Argi eta garbi hitz egin dutenen artean Joxe Arregi Deustuko Unibertsitako irakaslea dago. *Gara* egunkariak jasotakoaren arabera, Arregik Gipuzkoan ez dela Munillaren aurkako matxinadarik izango aipatu du. Ez dagoela horretarako indarrik dio. "Instituzioak disidentzia mugimendu oro itoko du aurki. Dena den, epe luzera eredu honek porrot egingo du". Arregik eliza aparatu "anakronikoa" dela gehitu du eta oso ezkor agertu da. Bere ustez Gipuzkoan jende askok elizaren alde lan egiteari utziko dio.

Andre Mari Jasokundekoaren parrokian lan egiten dutenetako batzuek antzerako iritzia dute. "Gotzain berria etorri eta zer egiten duen ikusi arte itxaron behar dugu, baina gure ustez bere etorrera atzera pausoa da. Vatikano II kontzilioak elizetako ateak ireki zituen, baina beste joera bat duen jendea etortzen bada dena utziko dugu", aurreratu dute.

Gotzain berria ondo ezagutzen dute, Zumarragan 20 urte eman baitzituen. "Baditu gauza onak. Langilea da, esaterako. Guri beti errespetua izan digu. Kontuan izan behar da bera baino zaharragoak garela, etorri zenean berak 24 urte bakarrik zituela eta dagoeneko gu hemen geundela".

Hala ere, ezin dute burutik kendu Munilla "Rouco Varelaren ildokoa" dela. "Dena den, ezingo du nahi duen guztia egin, hemen jende asko izango baitu kontra eta berauen beharra izango baitu. Izan ere, ezingo ditu bere aurka dauden guztiak ordezkatzeko adina apaiz ekarri kanpotik. Gainera, laikoen laguntza ere beharrezkoa izango du".

Bukatzeko, euskararen inguruko hausnarketa egin dute: Munilla euskalduna da, baina berarekin gure hizkuntza galtzen irtengo dela uste dute. "Bere etorrerak ez dio mesederik egingo, batez ere kanpotik apaizak ekartzen baditu".

Otamotz aldizkaria Luis Mari Segurola Andre Maria Jasokundeko parrokoarekin ere harremanetan jarri da, baina gai horren inguruko galderak ez dituela erantzun behar esan du. "Hitz erdi bat ez dut emango. Dagoeneko *Noticias de Gipuzkoa*, *El Diario Vasco* eta *El Mundo* egunkarietatik deitu didate eta guztiei berbera esan diet", azaldu du.

Herri Aldizkaria

Otamotz

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

-Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
-Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
-Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

-Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
-Urtean 12 euro.

-Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkartea
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu
-Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
otamotz@otamotz.com

	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	

Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



IRAKURRIENAK

1. Zumarragako bikote bat deklaratzera deitu dute haur pornografia tarteko.
2. Aritz handienen pare.
3. Munilla geroz eta gertuago.
4. Jose Ignacio Munilla, Donostiako Gotzain.
5. Arrakastaz estreinatu da 'Berunezko justizia. Ixilik Bang zuen izena'.
6. 'Nire amak ez dauka erremediorik' Antxiñe Mendizabalen azken liburua.
7. Jon Arana Urkiola espeleologo zumarragarra hil da.
8. Berriro atzeratu dute Ekai Alkortaren aurkako epaiketa.
9. Antioko azken proposamena handitu dutela salatu du EAJk.
10. Antiguarekin plataformak mobilizazioetarako deia egin du.

AZKEN IRAGARKI LABURRAK

-Garajea salgai Iparragirre plazan. Helbidea: Iparragirre 20. Mota: estalia. Metro karratuak: 30. Prezioa: 42000 euro.

-Zumarragan pisua salgai. Helbidea: Elizkale 5 - 6. G. Etxebizitza mota: pisua. Solairua: 6. Metro karratuak: 90. http://etxeasalgai.googlepages.com.

OTAMOTZ TELEBISTAREN AZKENAK

-Jose Ignacio Munilla, Donostiako gotzainaren mezaren pasartea.
-Antiguarekin herri plataformaren agerraldia.
-'Berunezko justizia. Ixilik bang zuen izena'.
-San Martin Jaiak Aginagan.
-San Martin eguna.
-Intxaurrak ipurdiarekin puskatzen.
-Emakumeak harriari tiraka.
-XXVII. Buzkantza Lehiaketa.
-Urola ibaia hazita dator (2009-11-08).
-Mineral bizidunak, txaranga, umeen parkea...
-Mineral, fosil eta harribitxien feria berezia.
-Txomin Morenoren fosilen erakusketa.
-'Itsaso bete fosil' erakusketa Juan de Lizarazun.
-'Z-Z Urolako trena bizikletaz' martxa igandean.
-Garagardo Feria (2009-10-25).
-Mikologia erakusketa (2009-10-25).



Herritarrek euskara erabiltzen duten dendariak sarituko dituzte

Ezkio-Itsasoko Yartu elkarteak, Legazpiko Zingi Zangok, Urretxu eta Zumarragako Zintzo-Mintzok, Urola Garaia udal elkarteak eta Emun kooperatibak Dendaria saritu eta irabazi 100 euro ekimena abian jarri dute. Egitasmo honen helburua euskara balio erantsia dela erakustea da. Horretarako, euskara erabiltzen duten merkatariei esker ona azalduko zaie ekitaldi publiko batean.

Kanpaina hau Gabonetako opariak eta erosketak aitzakia hartuta antolatu da eta bezeroak izango dira dendarien ahalegina sarituko dutenak. Beraien zerbi-tzua ematerakoan euskara balio eran-tsia dela argi duten dendariei hori esker-tzen dutela jakinarazi ahal izango dute eta, bide batez, 100 euroko erosketa-txartelen zozketan parte hartuko dute.



Merkatariek euskara bultzatzeko egin dituzten ekintzak dira saritzekoak: hitz egin, harrera egin, kartelak, oharrak... Kontsumitzaileen lana arreta jartzea, dendetan bertan aurkituko duten txartela betetzea eta ontzian sartzea izango da.

Dendari bakoitza bere mailan saritu ahal izango dute: denek ez dute ezagu-tza maila bera, baina ekintza batzuk jarrera onaren seinale dira. Hala, txarteltxoak hiru lagun saritzeko aukera ematen du: euskaraz jakin ez arren dendako kartelak, errotuluak eta oharrak euskaraz eskaintzen dituena; euskaraz egitea kostatzen zaion arren, saiatzen dena; eta zerbitzu erabat euskalduna eskaintzen duena.

Txarteletan bezeroak bere izena eta telefonoa eta saritu nahi duen dendaren izena jarri behar ditu. Ondoren, oparitarako dendek harrera mahaian izango duten ontzian sartu behar da txartel-txoa: *Euskaraz? Pozik gainera!* dion marrazkia izango duten horietan. Kanpaina abenduaren 3an hasiko da eta urtarrilaren 7an bukatuko da.

Ekimenaren bultzatzaileek 100 euroko sei erosketa txartel erosiko dituzte boto gehien jasotzen dituzten dendetan eta parte hartu duten bezeroen artean zozketatuko dituzte. Hiru sari Legazpira joango dira eta gainontzeko hirurak gainontzeko hiru herrietara.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATG
HARATEGIA URDAITEGIA
✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JavierArratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



BIONA

AROZTEGIA
Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

ALEX - BIBOLAZ
alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Montajes e Instalaciones Eléctricas
HERCE
Elektrizitatea, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

natural optics
URRETXU

Lurdes Rodriguez
Optiko-optometrista

Iparragirre,1-Urretxu
☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN ESKAINTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

TABERNA
Iburreta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK
KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com



Yarmanki
Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Herri Aldizkaria
Otamotz

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



Rouco Varela presents...

Munillaaaaaaaaa!!!

Jon Torner
Jon Ormazabal



Galdera saltsa

Artikuluaren entrega-datak ezustean harrapatu gaitu. Buruan galdera ugari, baina erantzunik ez azken asteetan Zumarraga-Urretxu(ren inguruan)n gertatutakoei buruz.

Antiguarekin plataformako kideek hitzaldia eskaini dute Zelai Aristin, polemika-iturri agortezina den interpretazio zentroaren inguruan. Suposatzen dugu Udalak erantzun egingo duela. Noiz arte?

Zurrumurruek indarra hartu dute: Jose Ignacio Munilla, El Salvador parrokiako erretore izandakoa, Gipuzkoako gotzain izenda dezake Antonio Rouco Varela kardinal ultraeskuindarrak. Argixaoraino helduko al dira bere atzaparrak?


Herriko beste seme ilustre bat. ELA sindikatuak Petronorreko langileek jasaten duten "xantaia eta manipulazioa" salatu ditu. Noiz utziko dio Josu Jon Imazek albiste izateari?

KKinzona kolektiboak *Berunezko justizia. Ixilik Bang zuen izena* erdimetraia estreinatu du. Labeaga aretoa gori-gori. *Goierri ez da Montana. Ala bai?* zioen *Hitza*ko titularrak... Zergatik Goierri? Ezin zitekeen jarri *Urretxu-Zumarraga ez dira Montana*? Badirudi *Goierriko Hitza*n sartzeko meritu bila gabiltzala. Tira, har ezazue hau goierritar sentitzen ez diren bi gizasemeren arrapostu bezala. Portzierto, zorionak erdimetraiagatik.

Zeintzuk dira azkarragoak, jatetxe txinatarreko sukaldari-zerbitzariak ala Goiko Kalekoak? Afaria eskatu eta bost minutura (zehazki 4 minutu eta 28 segundura), dozena erdi errazio eta beste hainbeste bokadilo eduki ohi ditugu Goiko-Kaleko barran. Inork kronometratu al ditu txinatarrak?

Bada beste gai bat dezenteko zalaparta sortu duena, baina poliziaren, *DV*ren eta egunkari horren foroan parte hartzen duten herritarren bertsio kakanahasleak soilik ezagutzen ditugunez, errugabetasun presuntzioan sinesten dugu.

Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzain izendatu dute. Zer iruditzen zaizu?



Asier Auzmendi




Komunikabideetan irakurri dut zerbait gai horren inguruan. Ez dut Munilla ezagutzen, baina elizara apenas joaten naizenez, berdin zait elizak Donostiako gotzain nor jartzen duen. Egun jende gutxi joaten bada elizara, Munillarekin gutxiago joango direla uste dut. Dena den, azken finean gotzainen aukeraketa ez dago elizara joaten direnen esku.

Joaki Yurrebaso



Ez nuen Munilla etortzea nahi. Berarekin lan egitea tokatu zitzaidan eta azken urteetan aldatu egin zen. Ez dut uste Gipuzkoara etorri beharko litzatekeenik eta hemengo apaizak nire iritzi berekoak dira.

Pedro Vazquez



Zer edo zer entzun dut, baina ez diot kasu handirik egin. Ez dakit nire iritzia balekoa izango den. Izan ere, ez dut Munilla ezagutzen eta apenas dut berari buruzko erreferentziarik: ez onak, ez txarrak. Egia esan, niri bost axola zait Gipuzkoako gotzain nor aukeratzen duten. Izan ere, ez naiz elizkoia.

Maite Lorente



Zerbait entzun dut, baina gaia ez zait asko interesatzen. Mojen ikastetxean ikasi nuen garaian ezagutu nuen. Dena den, ezin dut berari buruzko iritzi sendorik eman. Gainera, egia esango dizuet: kontu honi ez diot garrantzia handirik ematen. Pentsa, egungo gotzaina nor den ere ez dakit!

Gaia: Udazkeneko hosto eroriei begira. Hurrengo alerako jarritakoa: Bertsolari Txapelketa Nagusiko logoa.



Egilea: Beñat Torres

Leihora irten ta ikusi dut
nere parean nik bela
arbol txiki bat erdi biluzik
azpian dauka orbela.
Konturatu naiz pixkanaka´re
behean pilatzen ai dela,
eta pentsakor jarri naiz geldi
buruai esan honela:
honek guztiak esan nahi digu
udazkena iritsi dela.

Egilea: Amaia Iturriotz

Alboan dudan estufarekin
ondo berotu dut gela,
udazken honek hotzez akatu
nazakeelako bestela.
Eta leihotik begira nago
arratsaldero bezela,
mirespen handiz, baina tentsioz,
begiratu det orbela,
ondo baitakit gu ere aurki
jausi egingo garela.

Egilea: Mikel Iturriotz

Nere leihoko pertsianari
segitun ein diot tira
eta a ze ikusmira,
hosto pila bat erori dira
horko arbola azpira.
Eta pentsatzen jarri naiz orain
buruai jira ta bira,
udazkena iritsi da,
eta tristuraz jarri naiz hemen
gelan leihotik begira,
baina erori direnen lekun
berriak sortuko dira.


iritziz iritzi

Joxe Manuel Bereziartua



Hizkuntzen inguruko gorabeherak

Nire ingurukoek badakite ondo zer nolako gorabeherak izan ditudan aldartean ingelesa ikasteko egiten ari naizen saiakera dela eta. Tarteka nire aurrerapenen berri ematen diet. Mayi, lagunaren alaba, begira gelditzen zait. “Nola ikas dezakezu ingelesa? Oso aspergarria da!” Nik “gustatzen zaidalako” erantzuten diot eta orduan, oraindik harrituago, zera esaten dit “Nola gustatu ahal zaizu ingelesa? Oso itsusia da!”. Ez nago ohitua horrelako argudio sendoei aurka egiten. Beraz, isildu egiten naiz. Isildu bai, baina kontuari bueltak ematen jarraitzen dut “Horrelako gauza itsusia ikastea zenbait kostatzen ari zaidan jakingo bazenu!”.
Nire esperientziaren arabera bi gauza daude garrantzitsuak hizkuntza bat ikasteko. Alde batetik, irmotasuna. Saiatu eta saiatu egin behar da. Baina motibazioa ere behar da. Ikasketa prozesoa arina eta dibertigarria egin behar da. Horiek biak dituenari agintzen diot 15-20 urteren bueltan edozein hizkuntza menperatuko duela.
Sartu berri dizuedan erretolika hau arintze aldera hizkuntzari lotutako pasadizo bat kontatuko dizuet. Protagonista Camilo Jose Cela dugu, erdera oso gutxik bezala menperatzen zuen idazlea. Sari bat eman omen zioten Finlandian. Gizona larri, finlandieraz ez zela ondo moldatzen eta eskerrak emateko hitzaldia nola egingo zuen kezkatuta. Baina lagunak horrelako egoeratarako omen dira, eta adiskide batek esan omen zion; “Lasai joan zaitez, On Camilo, han denek dakite suedieraz eta”.



El animal piadoso

Luis Mateo Diez

Luis Mateo Diez (Villablino, León) Celamara itzuliko da, bere zenbait narraziotako ingurune paregabera, berak sortutako lurralde mitikora, alegia. Kokagune pertsonal horretan, Faulknerren Yoknapatawpha, García Marquezen Macondo edo hurbilagoa dugun Obaba moduko lurraldean kokatuko du bere gogoeta morala. Hamalau urte lehenago gertatutako hilketa baten ikerketaren aitzakiaz bakardadeaz, zahartzaroaz eta erretiratutako polizi komisario baten erruaz arituko zaigu. Mateo Diezek, nahiz eta polizi-nobelaren baliabideak erabili, genero nobelatik alde egiten du gizon bakarti baten kontzientzian murgildu aldera, hots, erruaren sendimenduak itota, barkamena eta errukia behar duen gizasemearengan barrentzeko.


Ricardo Babarro

In rainbows

Radiohead

Zer da musika emozioen sorrarazlea ez bada? Eta horiek bere gordintasunean azalarazteaz zer edo zer badaki Thom York Radioheadeko abeslariak. Bere ahotsak, abesteko daukan molde berezi horrek, infernuko atearen pareraino gidatu ditzake barru-barrutik ateratzen zaizkigun emozio horiek. Baina gugan kontrako efektua ere eragin dezake *Creeps*, *Karma Police* edo *High and Dry* bezalako abesti mundialen egileak. Rock alternatiboaren eta post-punkaren iturriak nahastuz, eta emari horri jazzaren, musika elektronikoaren edo klasikoaren lurrina gehituz, bidaia berean paradisuaren atariraino eraman zaitzake Yorkek bere bandaren laguntzarekin. *In Rainbows* (2007) 1993an lehen lana kaleratu zutenetik gaurdaino ateratako diska guztiekin egindako collage baten modukoa da.

Igor Susaeta





La buena vida

Andres Wood

Teresa, Edmundo, Mario eta Patricia Santiago de Chilen bizi dira. Ez dute elkar ezagutzen, euren bizitzek elkar ukitzen dute hiriko eguneroko eromenean, kotxe artean, hara eta hona presaka doazen bitartean. Patricia izango da kasu honetan beste pertsonaien arteko lotunea. Bakoitzak darabilen ametsa lortzeko modukoa dela dirudien arren, lortzea ez da erraza izango. Ahaleginak ez du beti ematen fruitua, ustekabeak ere izaten baitira. Andres Wood zuzendari txiletarra protagonista ugari dituzten film koralak filmatzeko ohiko moduaz aldentzen da. Ohikoena elementu dramatiko amankomun bat erabiltzea izaten da pertsonaia ezberdinen istorioak puntu jakin batean biltzeko. Kasu honetan, ordea, per-tsonaien bizitzak benetako bizitzara ahalik eta gehien hurbiltzen saiatu da.

ButaK 21 zineklub taldea





Santa Barbarako eraikin berria gaur egungo arkitekturaren adierazpen deigarrienetako bat bihurtzen ari da, disziplina honi eskainitako aldizkarietan gero eta gehiagotan aipatzen ari baitira Ibon Salaberria urretxuarraren proiektua. Proiektu ia gorpuztua, azaroaren haseran egindako argazkiok erakusten dutenez.

Gotzon Aranburu



Moztu eta eraman zurekin, dendaria saritzeko. Txartel bakoitzean datuak bete eta edozein dendatako kutxatxoan sar dezakezu.

Euskaraz ez dakizun arren, dendako paisaia euskalduna (kartelak, errotuloak, oharrak euskaraz ere egotea) eskaini didazulako...

hartu nire esker ona eta puxtarria

Izena: _____

Telefonoa: _____

Denda: _____

Balio Euskara Erantsia

Euskaraz egitea kostatzen bazaizu ere, saiatu egin zara harrera euskaraz egiten, nik esandakoak ulertzen, horregatik...

hartu nire esker ona eta puxtarria

Izena: _____

Telefonoa: _____

Denda: _____

Balio Euskara Erantsia

Zurean erosketak egitean erabat zerbitzu euskalduna jasotzen dudalako...

hartu nire esker ona eta puxtarria

Izena: _____


Telefonoa: _____

Denda: _____


Balio Euskara Erantsia

...ketarako eta sarituei jakinarazteko erabili ondoren deuseztatu egingo ditugu.









Dendaria saritu eta irabazi 100

Antolatzaileak

Zingi Zango.com
Legazpikoeuskaraelkartea


Yartu Kultur elkartea
Ezkio-Itsaso


EUSKALTZALEEN ZINTZO MINTZO ELKARTEA

EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA

MANCOMUNIDAD UROLA GARAIA UDAL-ELKARTEA









Santa Barbarako eraikin berria gaur egungo arkitekturaren adierazpen deigarrienetako bat bihurtzen ari da, disziplina honi eskainitako aldizkarietan gero eta gehiagotan aipatzen ari baitira Ibon Salaberria urretxuarraren proiektua. Proiektu ia gorpuztua, azaroaren haseran egindako argazkiok erakusten dutenez.

Gotzon Aranburu





Armando Arizmendiarrieta: Bizipozari eutsi zion gerrako haurra

1936ko gerra, helduek ez ezik, haurrek ere pairatu zuten. Asko Euskal Herritik kanpora bidali zituzten, beraiekin gerta zitekeenaren beldur. Horietako bat Armando Arizmendiarrieta da, Zumarragan bizi den eibartarra. Gurasoengandik hurrun bizi behar izan zen arren, ez zuen bizipoza galdu.



Armando Arizmendiarrieta bere etxeko balkoian.

Non jaio zinen?

Eibarren jaio nintzen duela 80 urte. Nire aita sozialista zen eta nire ama, berriz, Madrilgo familia eskuindar batekoa. Arreba eta biok haurrak ginela, banandu egin ziren. Batzuetan baten familiarekin eta besteetan bestearenarekin egoten ginela oroitzen dut. Guretzat gauza naturala zen. Arreba amarekin bizi zen eta ni aitarekin. Gerra heldu zenean, aitak arreba ere berarekin hartu zuen.

Eibarko oroitzapenik ba al duzu?

Haurtzarokoak gutxi, baina gerokoak bai. Izan ere, bolada batean Eibarren lan egin nuen.

Nola gogoratzen duzu gerraren hasiera?

Elgetako auzo bateko baserrian harrapatu ninduen. Bertan nire amonaren anaia bizi zen eta, baserriko lanak oso gustuko nituenez, oporrak bertan pasatzen nituen. Baserrian lan egiteko arro-

pa ere banuen. Gerra hasi zenean aita gure bila etorri zen. Eibar berehala bonbardatuko zutela uste zenez, Zornotzako baserri batera eraman gintuen. Bertan amonarekin egon ginen. Baserriaren izena ahaztu egin dut, baina oraindik hara heltzen jakingo nuke. Han geundela, aitak Eusko Jaurlaritzarekin gestioak egin zituen arreba eta biok Frantziara bidaltzeko. Dijon izeneko hirian izan ginen.

Aitak azaldu al zizuen inoiz zergatik erabaki zuen zuek Euskal Herritik bidaltzea?

Ba, egia esan ez. Sekula ez genion galdetu, gainera. Gauza normala iruditu zi-tzaigun. Entzun izan dudanaren arabera, Francok Bilbo hartu behar zuela argi ikusten zen. Haur batzuekin ikaragarriak egin zituenez, aipatzen direnak baino gehiago, guraso askok seme-alabak kanpora bidali zituzten hauek babesteko eta ondorengoak izango zituztela ziurtatzeko.

Nola oroitzen dituzu Frantziara joan aurreko hilabeteak?

Zornotzako baserria ondo gogoratzen dut. Bestalde, Gernika bonbardatu zutenean, egunez kea ikusten genuen eta gauez sua ere bai. Haurra nintzen, baina primeran oroitzen dut. Baserrian beste bi haur zeuden eta jolasten ematen genuen eguna. Hori bai, ongi genekien zenbait tokitara ezin zela joan. Gero jakin genuen aita Gernikan zela bonbardatu zutenean.

Zer dela eta zen zure aita frankisten beldur?

Sozialista zen, Amuategi batailoikoa. Egungo sozialistak eta lehengoak oso ezberdinak direla uste dut. Garai batekoak euskaltzaleagoak ziren.

Nola joan zineten Frantziara?

Gu ofizialki joan ginen, baina beste batzuk ezkutuan pasatu ziren mugaren beste aldera. Bordelera eraman gintuzten lehenengo eta gero Dijonera.

Nolakoa izan zen agurra?

Bilbora heldu ginenean obusak botatzen ari ziren. Aitak argazkia atera zigula gogoratzen dut. Jatetxe batean bazkaldu genuen eta, ondoren, aita hizketan aritu zitzaigun. Etengabe besarkatzen gintuen. Hunkigarria izan zen. Haur guztiok Bilbon gurasoei agur esan genien eta trenean Santurtzira eraman gintuzten. Han barkua hartu genuen. Francoren armadako Cervera ontziak ez zigun irteten utzi nahi, baina Gurutze Gorriaren babesa genuen eta azkenean utzi ziguten.

"Epaileri aitarekin bizi nahi nuela erantzun nion. Orduan ziega batera eraman ninduten ihes egin ez nezan"

Zer pasatzen zen zure burutik?

Haurrak ginen eta guretzako txango modukoa zen. Gainera, kontuan izan behar da gerra apenas ikusi genuela: Eibar eta Elgeta osorik zeuden handik irten ginenean, Zornotzan herritik kanpo bizi izan ginen, Bilbon zarata bakarrik entzun genuen, Gernikakoa urrutitik bakarrik ikusi genuen... Ez genuen ezer beldurgarririk ikusi.

Nola gogoratzen duzu Frantzian igarotako denbora? Gurasoez askotan gogoratuko zinen...

Tren geltoki zahar batera eraman gintuzten eta andereño batzuek zaindu egiten gintuzten. Batzuetan bertako jendea etortzen zen eta euren etxera eramaten gintuen bazkaltzera. Bikote batek nire arreba egun batzuetarako eraman zuen, baina ez zen itzultzen eta ondo zegoela esan zidaten. Handik gutxira, beste bikote batek ni eraman ninduen. Senarraren izena ere Armando zen eta horregatik hautatu ninduten. Sei hilabetera-edo, Frantziako eskola publikora eraman ninduten eta adoptatzen ahalegindu ziren.

Zer moduz moldatu zinen Frantziako haurrekin?

Gogor lan egin nuen eta nota onak atera nituela uste nuen: klasean 40 ginen eta lau frantses nire atzetik utzi nituen. Etxera pozik heldu nintzen, baina etxeko gizonak jipoitu egin ninduen. Asko maite ninduen, baina astapotro samarra zen. Hurrengo hilabetean biek eskolako lanak egiten lagundu zidaten eta behin gelako onena izan nintzen. Bi urte inguru eman nituen Frantzian. Herrialde hau Bigarren Mundu Gerran sartu baino apur bat lehenago itzuli ginen. Etxeko gizonak ordurako armairuan armadako trajea zuela gogoratzen dut.

Frantzian ondo hartu zintuztetela uste al duzu?

Bai. Esan dezakedan guztia ona da. Jendeak asko maite gintuen.

Baina arrebarengandik bananduta egon zinen.

Arrebarena tristea izan zen. Ez nekien ezer beraz. Halako batean ospelak izan



Armando Miren emaztearekin.

nituen hanketan. Medikuari nire abizena zein zen esan nioenean, abizen bereko neska bat ezagutzen zuela esan zidan: nire arreba zen, noski. Oso gaizki zegoela esan zidan, berarekin bidegabekeria egin zutela: etxeko emakumea gaixo zegoen eta arreba, 6 edo 7 urterekin, bera zaintzeaz arduratzen zen. Nire etxekoek, hori jakin zutenean, arreba ere hartu zuten. Biok asko maite gintuzten eta gure gurasoak hiltzen baziren adoptatu egingo gintuztela esaten zuten.

Nolatan itzuli zineten?

Amaren bi ahizpek Francoren ministerio batean lan egin zuten eta beraiek eskatuta itzuli ginen Frantziatik. Hondarribian jaso gintuzten. Hilabete eman genuen Bilbon eta gero Madrilera eraman gintuzten. Hori dela eta, nire euskara kaxkar samarra da. Arrebak, berriz, gaztelera galdu zuen. Gure artean frantsesa erabiltzen genuen eta frantsesez hitz egitea debekatu ziguten arrebak gaztelera lehenbailehen ikas zezan. Madrileko senitartekoek ez zuten ulertzen inork seme-alabak urrutira bidaltzea: nik beti aitak gu babesteko egin zuela esan diet. Aitak gu kanpora bidali izana ulergarria da: Francoren aldekoek egindako astakeriak ikustea besterik ez da.

Zuretzat ez zen batere gozoa izango amaren familiarekin bizitzea.

Ez ziguten gure iritzia ematen utzi: presaka eta korrika ekarri gintuzten. Bost urte eman nituen Madrilen amarekin, izebekin eta aitona-amonekin. Ama berriro ikustea oso pozgarria izan zen, baina berehala hil zen: 1940an, 33 urterekin. Aitaren eta amaren arteko istilurik ez dut gogoratzen. Gerra hasi aurretik batzuetan amarengana joaten nintzela eta arreba guregana etortzen zela oroitzen dut. Gerrarekin hori guztia aldatu egin zen. Amaren familia oso boteretsua zen, Frantziatik itzuli ginenean, aitari gugana hurbiltzea debekatu zioten. Ez zuten ni aitarekin itzultzea nahi eta adingabeen babeserako auzitegira jo zuten. Epaileak aitarekin bizi nahi nuen galdetu zidan eta nik baietz esan nion. Orduan, ziega batera eraman ninduten ihes egin ez nezan. Egunbete eman nuen bertan eta, ondoren, erreformatorio batera bidali behar ninduten. Ziegan nengoela, arreba eta amona entzun nituen ziegako leihotik. Deitu egin nien eta ziega batean sartu nindutela ikusi zutenean, atera egin ninduten.

Azkenean aitarekin itzuli zinen. Nolatan?

Madrilera joan zen eta, ezkutuan, gurekin egon zen. Handik aurrera elkarri gutunak idazten hasi ginen, ezkutuan. Aitak bidaltzen zituen gutunetan bi mezu zeuden. Arrunta eta ezkutukoa: papera bustita ikusi zitekeena. Bigarren mezu honetan bere benetako egitasmoen berri ematen zidan. 14 urterekin Falangearen sindikatu batean sartu ninduten eta euren uniformea eraman behar nuen. Falangearen kanpaleku batera joatea eskaini zidaten eta aitak Euskadira etortzea eskatzeko esan zidan. Plentziako kanpalekura bidali ninduten. Aita ni ikustera joan zen eta kanpalekutik ihes egiteko plana prestatu genuen. Handik astebetera-edo ihes egin nuen. Aita kanpoan zain nuen, ordezko arroparekin, eta Lekeitioraino oinez joan ginen. Ondoren, Mutrikura autobusa hartu genuen: izan ere, aita Eibarretik desterratu zuten eta ordurako


Arizmendiarrieta bere emaztearekin, seme-alabekin eta arrebarekin.

aipatutako kostaldeko herrian bizi zen beste emakume batekin. Ni ere bertan bizi izan nintzen 27 urte bete nituen arte. Ni iritsi eta gutxira, arreba ere Mutrikura etorri zen. Izan ere, dagoeneko amarik ez genuenez, berak ere aitarengana etorri nahi zuen.

Zer moduz moldatu zineten amaordearekin?

Alarguna zen eta seme bat zuen. Garbia eta azkarra zen, baina ez zen oso ondo portatu gurekin. Oso gogorra zen gurekin. Anaiordearekin, berriz, ondo moldatu nintzen. Nire ustez, aitaren emazteak bere semeari ikasketak eman ahal izango zizkiotela uste zuen, baina arreba eta biok heldu ginenean bere asmoak pikutara joan ziren. Niri gogor egiten zidan, baina arrebari gehiago. Konturatu nintzenean, aitari zer edo zer egiteko eskatu nion. Etxean sekula ez nuen istilurik sumatu, baina egun batetik bestera amaordea eta anaiordea etxetik joan ziren.

Frankistek aita bakean utzi al zuten?

Franco Donostiara etortzen zen bakoitzean Martutenera eramaten zuten. Han pasatzen zituen berak oporrak.

"Franco Donostiara etortzen zen bakoitzean aita Martutenera eramaten zuten. Han pasatzen zituen oporrak"

Zertan aritu zinen lanean?

Orbean hasi nintzen, bizikletak egiten. Gainera, aitari laguntzen nion: Santa Lucia enpresaren erreziboak kobratzen lan egiten zuen. Handik urtebetera Debako giltzarrapo lantegi batera joan nintzen, tornuan lan egitera. Arreba, berriz, Mutrikuko zaku lantegi batean hasi zen. Amaordea eta anaiordea etxetik joan zirenean, etxetik kanpo lan egiteari utzi zion. Halako batean nire izeba bat etorri zen Madrildik eta berarekin eraman zuen: ikasketak eta lana eskaini zizkion, baina osaba bat zaintzen ere jarri zuen. Azkenean arreba moja egin zen. Niri dagokidanez, izebak irratiak konpontzen eta pelikulak proiektatzen ikastea aholkatu zidan. Ondarroako zine batean ikasi nuen filmak botatzen. Behin matxura bat izan zen eta teknikoak Mutrikun berarentzat etxebizitza topatzen banuen irratiak konpontzen irakatsiko zidala esan zidan. Dena den, azkenean nire kabuz ikasi nuen gehiena. Hala, irratiak konpontzen ere hasi nintzen. Arrebak alde egin ondoren, bost urte eman genituen aitak eta biok Mutrikuko taberna batean gosaltzen, bazkaltzen eta afaltzen. Arropa garbitzera emakume bat etortzen zen.

Nola ezagutu zenuen emaztea?

Bere ama ezaguna nuen eta Donostian lan egiten zuen alaba niretzako modukoa zela esaten zidan beti. Ez nion kasu handirik egiten... "Donostian utz ezazu...", pentsatzen nuen. Halako batean zorioneko alaba etorri zen eta *joder*... sekulako emakumea zen!

Bat-batean maitemindu zinen, beraz. Berehala ezkonduko zineten...

Mirenek (emazteak) Padilla-Satrustegi sendiaren etxean lan egiten zuen. Etxeko gizona egungo Espainiako erregearen aitaren idazkaria zen. Ezkontzekoak ginela, Mutrikura etorri


Armando bere aitarekin.


Armando Arizmendiarrieta eta Miren Ansorregi, Aintzane alabarekin eta Ainara eta Iñaki bilobekin.

zen eta gugatik galdetu zuen. Berarengana joan nintzen eta "oye chaval, diles que vengan" esan zidan. Emaztea eurekin eraman nahi zuten, baina ezetz esan nien. Ezkondu egin behar genuela.

Emaztea amaginarrebak aurkeztu zizun.

Nire ustez Mutrikuko herriak ez zion behar bezala eskertu herriaren alde egin zuen lana: ospakizunetako bazkariak prestatzen zituen, eliza atontzen zuen ezkontza bat zegoen bakoitzean... Ogi puska zen. Mirenen aita ere pertsona zoragarria zen.

Nolatan etorri zineten Zumarragara?

Aita izan zen etortzen lehena. Santa Luciak hemen kobratzaile bat behar zuelako etorri zen. Kontua da aita besamotza zela eta halako lanak bakarrik ematen zizkiotela. Ezkondu nintzenean, irabazten nuenarekin oso larri genbiltzala ikusi nuen eta Eibarren elektrikari lanean aritzea erabaki nuen, baina aitak berarekin Zumarragarra etortzeko eskatu zidan. Alaba nagusia, Aintzane, jaiota zegoen ordurako. Ez nituen Zumarraga eta Urretxu ezagutzen eta ez nuen etorri nahi. Emazteak ere ez zuen etorri nahi. Lana aurkituko nuela banekien, baina etxebizitza falta handia zegoela banekien (jendea baserri zaharretan pilatuta bizi zela) eta hori baliatu nahi izan nuen ez etortzeko: etxebizitza aurkitzen bazuen bakarrik etorriko ginela esan nion. Hurrengo asterako etxebizitza aurkitu zuen!

Non hasi zinen lanean?

Orbegozon. Elektrikari lanean aritu nintzen. Termoak konpontzera bidaltzen ninduten. Altzolako bainuetxera joaten nintzela gogoratzen dut, adibidez. Lantegiko lanetik kanpo, irratiak, telebista aparailuak eta garbigailuak konpontzen nituen. Bestalde, Orbegozok Udalarentzat elektrikari lanak egitera behartu ninduen. 1957an hasi nintzen Orbegozon eta 1993an erretiratu nintzen. Ordurako ez nuen Orbegozorentzat lan egiten: 1972an Agurainen ireki zuten plantara bidali ninduten eta lantegi hau beste enpresa batek erosi zuen handik urte batzuetara.

Nolakoa da zure egunerokoa erretiratu zinenetik?

Ordenadore kontua asko gustatzen zait. Bestalde, emaztearen eta bion zuhaitz genealogikoa prestatzen ari naiz.

1945

Urretxu eta Zumarragako parrokietako abesbatzetako kideen txangoa Kizkitzara.

Etzanda: Martin Zenekorta, Manolo Garin eta Jose Luis Lete.

Eserita, lehen ilaran: Luis Bengoetxea, Gabriel Zamalloa, Migel Zelaia, Jose Mari Arranz, Felipe Lete, Felix Albisua, Luis Mari Garin eta Javier Bengoetxea.

Bigarren ilaran: Jose Migel Mendizabal, Daniel Ibarzabal, Anjel Badiola, Paco Mantxola, Daniel Zabalo, Celestino Pozueta eta Jose Olaetxea.

Hirugarren ilaran: Perico Bengoetxea, Patxi Irureta, Laureano Mendia, Jose Iturriotz, Luis Arrizabalaga eta Maximino Barrutia.

Laugarren ilaran: Martin Errekalde, Justo Balzategi, Lazaro Artzelus eta Ignacio Mantxola.

Bosgarren ilaran: Claudio Carulla, Vicente Azkarate eta Jose Gartziandia.

Seigarren ilaran: Victoriano Balzategi, Pascual Okariz, Santos Sampedro, Ignacio Rodriguez, Juan Jose Arrizabalaga, ..., Daniel Arbulu, Luis Kerejeta, Abundio Alvarez, Jose Plazaola, Bonifacio Aldalur, Luis Otxoa, Jose Joaquin Azpiazu, Jose Gabilondo, Juan Pedro Maidagan, Prudencio Kortaberria, ..., Pedro Arrizabalaga, Jose Larrea, Esteban Oiartzabal, Jose Ignacio Zaldua, Facundo Azkarate, Severo Paternain, ..., Jesus Olazabal, Antolin Araistegi, Juan Zaldua, ... eta Ramon Badiola.



Joseba Iturbe: "Umetan txarangaren atzetik ibiltzen nintzen"

Joseba Iturbe zumarragarrak bateria jotzen du eta, egun, Bartzelonan bizi da. Duela urtebete inguru, Jiggy taldearekin jotzen hasi zen. 'Amateur' diskoa grabatu du talde honekin.



Joseba Iturbe, bateria jotzen.

Nolatan musika zalea?

Txikitatik naiz zalea. Bi urterekin, haurtzaindegian, musika bandaz mozorrotu ginen eta nik txindatak eraman nituen. Andereño batek nire amari utzitakoak ziren eta azkenean oparitu egin zizkidan. Festetan txarangaren atzetik ibiltzen nintzen txindatekin.

Berehala solfeoa ikasten hasiko zinen.

Hala da. Ondoren perkusioa ikasi nuen. Oso argi nuen perkusioa ikasi eta musika nire ogibidea izatea nahi nuela. Hemengo musika eskolatik Errenteriako kontserbatoriora joan nintzen. Bertan perkusio klasikoa ikasi nuen, baina bateria nahiago nuen, eta uztea erabaki nuen. David Barcos bateria-jotzaile nafarrarekin eskola partikularrak hartzen hasi nintzen.

Musikatik kanpo, beste ikasketarik egin al duzu?

Andoainen soinuaren inguruko ikasketak egin nituen eta, ondoren, Bartzelonara joan nintzen espezializazioa egitera. Lana bilatzeko garai txarra denez, elektronika ikastea erabaki dut.

Zein taldetan jo duzu orain arte?

Secundino Esnaola musika eskolako tal-

deetan, Zumarragako musika bandan, Euskadiko musika eskolen bandan, batukada taldean eta Mehatxu eta Middle Finger rock taldeetan.

Zer musika mota atsegin duzu?

Denetik entzuten dut. Hori dela eta, koadrilako berezia naiz. Dena den, metala eta stonerra dira une honetan gehien gustatzen zaizkidanak. Bateria-jotzaileei dagokienez, gustukoenak Led Zeppelin taldeko John Bonham eta The Who taldeko Keith Moon dira. Nire ustez bi horiek beraien ondoren jotzen hasi garen guztiongan eragin handia izan dute.

Zer dohain behar ditu bateria-jotzaile on batek?

Hasteko, gogoa. Bestalde, erritmoa izan behar da. Talde batekin bateria jotzeko ez da aparteko dohainik behar. Artista izatea beste gauza bat da, noski.

"Nire bateria jotzaile gustukoenak Led Zeppelin taldeko John Bonham eta The Who taldeko Keith Moon dira"

Indar apur bat behar izango da…

Ez dago gimnasiora joan beharrik. Jotzen, instrumentua kargatzen… giharra egiten da. Batez ere, udako festetan egunero jotzen dutenek. Lantegia bezala da: mailuarekin jo eta su dabilenak besoan indarra izatea normala da.

Noiztik zaude Bartzelonan?

Duela urte pare bat joan nintzen. Lehen urtea gogorra izan zen, ez bainuen inor ezagutzen. Taldearekin hasi nintzenean gauzak aldatu egin ziren.

Nolatan hasi zinen Jiggy taldean?

Taldeko bi neskek urte dezente daramatzate elkarrekin. Beti beste musikari batzuekin aritu dira, baina azken hauek ez ziren taldekideak. Aurten talde formatua hartu nahi izan dute eta apirila aldean baxu-jotzailea eta gitarrista sartu ziren. Ni ekainean sartu nintzen. Nire entsegu lokala taldearenaren parean zegoen. Jotzen entzun zidaten eta, bateria-jotzailea behar zutenez, ate azpitik nota bat pasatu zidaten. Beraiekin harremanetan jarri nintzen, proba egin zidaten eta taldean sartu nintzen. Hospitaleten entseatzen dugu, 300 lokaletik gora dituen pabilioi handi batean.

Zer nolako musika egiten duzue?

Pop-rocka jorratzen dugu batez ere, baina aranbi ukitu handia dugu. Izan ere, bi neskek betidanik aranbia egin nahi izan dute. Dena den, hiru mutilak oso metaleroak gara eta *kaña* pixka bat eman diogu estiloari. Hala, gurea nahasketa berezia da.

Zer diozu diskoaz?

Guk ekoiztu dugu eta gogorra izan dela aitortu behar dut. Kontzertuak lortzea, berriz, nahiko zaila da. Bartzelonan aretoa alokatu behar da jo ahal izateko, baina dirurik ez duenak ezin du.

Etorkizunera begira, zer asmo dituzu?

Ahalik eta kontzertu gehien eskaini nahi ditugu, asko gustatzen baitzaigu eta oso ondo pasatzen baitugu. Bestalde, taldea ezagutzera eman nahi dugu, egonkortasuna lortu ahal izateko.

Nola lortu daiteke zuen diskoa?

Ingelesezko bertsioa gaztetxean eta Fox eta Huts tabernetan eros daiteke. Bestalde, taldearen *Myspace* gunean


Joseba Iturbe bere taldekideekin.

*MP3*a deskargatu daiteke. Kalitatea eskasagoa da, baina taldea ezagutzeko balio du.

Bukatzeko, nolakoa da Bartzelonako bizimodua?

Gogorra da, niri herriak gustatzen baitzaizkit. Halako hiri handi batean bizitzeak nekatu egiten nau. Horrenbeste jende, toki batetik bestera dagoen distantzia luzea… Bestalde, Bartzelona oso garestia da. Herrian lasai asko egin daiteke parranda asteburuero, baina han kontu handiz ibili behar da. Hemen gau osoan gasta-tzen dena, han ordubetean joaten da. Turistentzako gauza erakargarriak ditu, baina bizitzeko hiri gogorra da. Dena den, oraingoz han jarraitzeko asmoa dut.

Aitor Alberdi: Goi mailako kirolarien prestatzaile

Aitor Alberdi zumarragarra Getxoko goi-errendimenduko zentroan hasi da lanean, BAT fundazioko kirolarien prestakuntzan. Bertako jardunaz eta bere kirol jardueraz hitz egin du 'Otamotz' aldizkariarentzat.


Aitor Alberdi Guadalajarako triatloian.

Zer ikasketa egin zenituen?

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak ikasi nituen Gasteizen eta, ondoren, Espainiako komite olinpikoaren goi mailako masterra egin nuen Madrilen. Hilabetean behin joan behar izaten nuen eta gainerako lana etxetik egiten nuen.

Zertarako da masterra?

Goi-errendimenduan espezializatzeko. Goi mailako entrenatzaile titulua dutenak eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak ikasi dutenak joaten dira. Masterra Bartzelonako Joko Olinpikoen garaian antolatu zen. Teknikoen prestakuntza hobetu beharra ikusi zen: kirolarien ibilbidea laburra da, baina teknikoak denbora luzean mantentzen dira eta eurengan inbertitzea erabaki zen.

Madrilen goi mailako prestatzaileekin arituko zinen, beraz.

Espainia mailako entrenatzaile onenak dira irakasleak.

Nondik nora ibili zara lanean Getxon hasi aurretik?

Ikasketak bukatzen ari nintzenean Ordiziako kiroldegian igeriketa eskolak eman nituen. Ondoren, Getxon datu bilketa lan bat egiteko aukera sortu zen. Kirolarien maila ikertzen egon nintzen Athlon enpresak kontratatuta bi hilabetez. Enpresa berean jarraitu nuen eta Eskoriatzako Unibertsitatean lan egiteko aukera eman zidaten. Urtebete eta bi hilabete eman ditut bertan eskolak ematen.

Nola sortu da Getxon aritzeko aukera?

Duela bi urte gutxi gorabehera oposaketa batzuk atera ziren bertan lan egiteko eta azterketa gainditu nuen, baina masterra ez nuen eginda oraindik eta hori ezinbesteko baldintza zen. Orain eszedentzia hartu duen baten ordez lan egiteko deitu didate eta hiru urterako lana dut gutxienez. Getxokoa goi mailako kirolariekin lan egiten duen Eusko Jaurlaritzaren zentroa da eta egun BAT fundazioko kirolarientzat lan egiten du batez ere. Entrenamenduak aurrera eramateko eta testak egiteko tokia da. Lau teknikari, bi mediku eta teknologiaz arduratzen den pertsona bat gaude.

Zein da zure lana?

Teknikari bakoitza kirol batzuetaz arduratzen da eta kirol horietako goi mailako kirolarien jarraipena egiten du. Baldintza batzuk betetzen dituztenak sartzen dira fundazioan. Egun Leire Olaberria eta Unai Elorriaga txirrindulariak, Ainhoa Murua eta Virginia Berasategi triatloilariak... daude fundazioan. Ni txirrindularitzaz, triatloiaz, eskaladaz, neguko kirolez, igeriketaz eta kirol egokituez arduratzen naiz. Lan asko dela dirudi, baina kirol batzuetan ez dago bekadun kirolaririk. Dena den, guk prest egon beharra dugu.

Euren prestakuntzaz ere arduratzen al zarete?

Batzuek euren egitura antolatuta dute eta ez dute laguntzarik behar, baina beste batzuek bai. Horiei planifikazioa aurrera eramaten laguntzen zaie.

Zuen azterketak bekak eman edo kentzeko erabiltzen al dira?

Ez. Bekak txapelketetan lortutako emaitzen arabera ematen dira.

Suertatu zaizkizun kirolekin gustura izango zara. Izan ere, horien artean zuk jorratzen dituzunak daude.

Zortea izan dut. Han dauden kirolen artean gehien interesatzen zaizkidanak suertatu zaizkit. Erresistentziako kirolak gustatzen zaizkit. Txirrindularitzan ibilitakoa naiz eta orain triatloietan nabil. Bi mundu horiek ezagutzen ditut.

Zer moduz lanean eman dituzun lehen egun hauek?

Oso gustura. Oraindik ez dut kirolariekin egoteko aukerarik izan. Lehengoan Oihana Blanco judoka izan zen bertan eta, nire taldekoa ez den arren, berarekin izan nintzen protokoloa nolakoa den ezagutzeko.

Zu ere kirolaria zara eta lehiaketetan parte hartzen duzu. Nolakoa izan da denboraldia?

Gorabehera handiak izan ditut: batzuetan oso ondo aritu naiz eta besteetan oso gaizki. Dena den, balorazioa positiboa da.

Zergatik uste duzu izan dituzula horrenbeste gorabehera?

Denboraldia maiatzean hasten da eta sasoi horretan oso nekatuta sentitu nintzen. Laneko kontuengatik beharbada. Uztaila arte justu samar aritu nintzen, baina gero Alpeetako Iron Mana egitera joan nintzen Jon Azpiazurekin eta oso gustura aritu nintzen. Ez nuen bukatzea lortu, baina neure burua ondo ikusi nuen.

"Kirola egin nahi duenak fisikoki ondo dagoen ikusi behar du: medikuarengana jo behar da"

Hona itzuli ginenean Aritzalekuko lehiaketa irabaztea lortu nuen. Maila eskasa zen, hurrengo egunean Espainiako txapelketa baitzen, baina ondo aritu nintzen. Ondoren, Guadalajaran bigarren postuan sailkatu nintzen. Estatuko lehena izan nintzenez, 2010ean Lanzaroteko triatloian izena ematea eta astebeteko egonaldia ordainduta ditut.

2010erako erronka baduzu, beraz.

Arazo bat dut: proba maiatzean da, luzea da eta hemen neguak gogorrak izaten dira. Ingurukoak joateko esaten didate, baina nik ez dut batere argi ikusten. Ez dut bukatzeko bermerik gabe joan nahi. Dena den, izena eman dut. Gabonetan erabakiko dut zer egin.

Beste erronkarik ba al duzu?

Oraingoz ez. Lan bat utzi eta bestea hartu dudanez, denbora gutxi izan dut ezertan pentsatzeko. Dena den, jarraitzeko gogoa dut. Gabonetan edo urtarrilean jarriko dut helburua.

Zure prestakuntzaz zu zeu arduratuko zara, ala?


Bai, baina batzuetan asko jakiteak eta mundu hori ezagutzeak ez du balio izaten: mania batzuk hartuta ditut eta horiekin egiten dut aurrera. Denbora gutxi dut planifikazio zehatza jarraitzeko. Triatloiak ordu asko eskatzen ditu eta planifikazioa jarraitu beharra presio handia da. Urtea epe ertainera eta epe luzera begira antolatzen dut eta horren arabera egunerokotasunera moldatzen naiz.

Hiru diziplina entrenatu beharra ez al da zoratzekoa?

Batzuetan bai. Askotan hiruetan batera hobetu nahi dugu eta hori oso zaila da. Antolaketa eta pazientzia kontua da.

Kirola egiten dutenei aholkuren bat emango al zenieke?

Betikoa: profesionalen eskuetan jartzeko. Kirola egin nahi duenak fisikoki ondo dagoen ikusi beharra du eta horretarako medikuarengana jo behar da. Bestalde, profesionalen esku jarri behar da. Kirolaz mundu guztiak uler dezakeela dirudi, baina mundu horretan ere profesionalak daude eta eurengana jo behar da. Aldea nabaria da. Horretaz gain, jendea triatloia egitera animatu nahi nuke. Herrian taldea dugu eta taldeko ateak zabalik ditugu.



Alex Areizaga

Informatika

'Jdownload'

Kazetari entzutetsuak nire zutabe umil honetara batu diren honetan baliabide edo gomendio erabilgarriagoak ematen hasiko naiz. Batetik *Jdownload* programa dugu. Fitxategi bat jaistean askotan lotura askori eman behar diegu, hauetatik ere behin eta berriro zeinuak eta itxaron denborak igaroz. Programa honekin, lotura horiek dituen orrian sartzea nahikoa da lotura guztiak programan zerrendatu eta honek automatikoki jaisten jartzeko. Horrela zeinuak automatikoki sartzen dira. Denbora eta lan handia aurrezten du programak eta erabilera, ikus daitekeenez, erraza eta azkarra da. Orrira sartzea nahikoa da loturak programan azaltzeko. *XP*ko erabiltzaileentzat bada argazkiak tamainaz karpetan bertan jaisteko modurik ere. *Google*n *Image Resizer Power* jarrita deskargatu daiteke aplikazioa *Windows*en orrialdetik eta karpetan bertan argazkiak tamaina desberdinetara jaisteko aukera ematen du.



Oihane Sudupe

Osasuna

Neguko bitaminak: alkatxofa

Neguko ortuari honek ezaugarri sendagarri nabariak ditu. Horregatik, urteko hilabete hotzak aprobetxatu behar ditugu produktu hau egosita edotan lurrunetan prestatuta kontsumitzeko. Potasioan aberatsa da (350mg/100g) eta baita fosforo eta azido folikoan ere. Behazun jarioa eta gibeleko odol irrigazioa gehitzen ditu eta horrela liseriketa hobetzen da. Pisua galtzeko dietak jarraitzen dituztenentzat elikagai aproposa da. Izan ere, oso kaloria gutxi ditu eta gantzen bereganatzea oztopatzen du. Gainera, duen azukrea, inulina izenekoa, diabetikoek ondo onartzen dute. Prestatu ondoren, berehala kontsumitzea gomendatzen da, berehala hondatzen baitira onuragarriak diren ezaugarriak.

Houdiniren kazetaria

Houdini handia izan omen zuen tarte osoan gogoan. Hogeigarren mende hasierako ilusionista famatua. Elefanteak desagerraraztea hark bakarrik lortu zuen; halakorik! Hanketatik zintzilika, buruz behera akuario batean sar zezaten eskatzen zuen, adoretsu. Eta gandorra tente, eztulik egin gabe libratzen zuen desafioa. Alkandora hertsagarriek ere ezin izaten zuten lotu. Bere burua kate-girnaldetatik askatzeko gai zen gizon hura.

Houdini handia, eskuak lotuta zaku barruan. Zakua kutxan eta kutxa ondo lotuta eta giltzapetuta. Bere laguntzailea kutxaren gainera igo da, gortina moduko oihala astindu du, gertatzera doana ezkutatzeko. Gortina erortzen utzi eta... *voilà*, eskapista handiak ordezkatu du bere laguntzailea. Houdini handia garaipen usainez kutxaren gainean.

Instantean, ireki dira kutxaren giltzarrapo eta sokak eta irten da eskapistaren laguntzailea kutxa barrutik. Bi irribarre handi baizik ez dira txaloen zain.

Houdini handiagatik izan ez balitz... lehenago eman izango omen zuen amore. Hura, edozein herritako presondegian edota polizia eta agintarien aurrean azaldu zalea zen, beti oilar. Kazetariez inguratuta, noski, hordagoa botatzen zuen. Herriko aldizkarian jasotzen zuten eskapista handiaren desafioa, hitz ederrez eta gloriaz. Lantegietako sarreretan, okindegietan, medikuaren kontsultan, elizako arkupeetan… herrian ez zen beste gairik izaten.

Komentatu zuen, jarraitzaileek sentimendu kontrajarriak izaten zituztela. Berari behinik behin hala gertatzen zitzaiola. Alde batetik, ilusionista garaile irten zedin nahi izaten zuen, sokak askatzea, alegia. Bestetik, ordea, gizon haren mugak ikusteko desiratzen egoten zen. Urduri eta harro, haren borreroa bailitzan.

Bart, igogailuaren erpin batean eserita bukatu zuen, kikilduta, burumakur. Antza, desafioa handi geratu zitzaion.

Laguntza eskatzeko botoiari eman aurretik, Houdini bezala, bera ere, bakarrik, itxialditik libratzeko gai bazela erakutsi nahi izan zuen. Adoretsu eta garaile irten, harrapatuta zegoen igogailutik, irribarre batekin eta txalo artean.

Hala ere, denborak, nahiz eta tarte txikia izan, bere eta egoeraren mugez ohartarazi zuen: hirugarren eta laugarren solairuen artean zegoen. Ez gora eta ez behera. Nahiz eta eskailerak igotzeko eta jaisteko izan. Beste aukerarik gabe, azkenean, amore eman zuen. Txirrinak oihartzuna izan zuen eraikin hutsean.

Deiari erantzun zion ahotsaren lasaitasunagatik eta goxotasunagatik izan ez balitz, igogailutik egin ezinda, lehenago irtengo zatekeen bere onetik. Izan ere, berriz isiltasuna berreskuratuta, minutuak ez ziren errazak izan: luzeak eta hutsak. Metro karratu bakarra, sabaia goran, zorua azpian - eta ezereza azpi-azpian-, irekitzen ez zen atea alde batean, eta beste hiruretan ispilua, ispilua eta ispilua. Eta bertan, bera, bera eta bera. Bakardade hirukoiztua. Eta Houdiniren itzala.

Nork, nork eta nork botako zuen faltan, han, igogailuan harrapatuta zegoen bitartean? Galdera horixe pizten zitzaion behin eta berriz. *Zer da, bada, ni gabeko egun bat ingurukoen bizitzan?* Etxetik irteterakoan, ez zion inork nora zihoan galdetzen; ez eta ea bazkaltzeko bueltatuko zen ere. Are gutxiago afaltzeko. Ez zen inoiz berandu ailegatzen. Inork ez zion nolako aurpegia zekarren adierazten. Ez zeukan inori kontu eman beharrik.

Gora begiratu, sei begi gainean ez ikustearren; txoko erosoa bilatu; pikotxetan jarri eta astiro-astiro igogailuaren erpinean eseri zen. Bertan, bera, bera eta bera. Eta Houdiniren itzala. Baina arrastorik ez.

Eskerrak, instantean, igogailuen enpresako teknikoa, guardia egiten ari zena, azaldu zen. Honek, atea irekitzea lortu bezain pronto, igogailu barruan zenak ikusi zuenean, lepora egin omen zion salto. Euforiak oraindik irauten ziola, jariotasunez, igogailuaren barruan gertatutakoa kontatu zion istorioak entzuteko gogorik ez zuen teknikoari. Bertatik bere kabuz, adoretsu eta garaile irten izan balitz bezala hitz egiten zuen gainera, hitz ederrez eta gloriaz. Houdiniren kazetariek egiten zuten bezala.

Amaia Artolazabal Amilleta

Alex Areizaga



Alex Areizaga zumarragarrak Gainzuri ikastetxean eta Joxe Mari Iparragirre institutuan egin zituen oinarrizko ikasketak. Ondoren, Injeniaritza ikasketak utzi eta Kazetaritza ikastea erabaki zuen. Egun, 'Goierriko Hitza' egunkarian lan egiten du. Horrez gain, 'KK in'zona' komunikazio proiektuaren buruetako bat da. Iaz euren irratiak FMn emititzea lortu zuten eta azaroan, berriz, 'Berunezko justizia, Ixilik Bang zuen izena' erdimetraia aurkeztu zuten Urretxuko Labeaga aretoan. Filmak harrera bikaina izan du.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Arotza. Haurrentzako zeuden arotz jostailuekin jolasten nuela gogoratzen dut.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lagunekin egon, 'X-Box' bideo-jokoen kontsolan jolastu, irratira joan zer edo zer egitera...

Bizitzeko toki bat?

Gabiria. Hiri handiak ez ditut gustuko.

Gustuko zuzendaria?

Zuzendaria baino jende koordinatzailea naizela esaten dut. Quentin Tarantino asko gustatzen zait.

Gustuko generoa?

Akzioa eta umore absurdoa atsegin ditut.

Gustuko aktorea?

Robert de Niro, Clint Eastwood eta Leslie Nielsen handia.

Gustuko herriko aktorea?

Aritz Ormazabalek oso ondo lan egiten du. Beste batzuek ere bai. Egia esan, ezusteko atseginak izan ditugu.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Denak. Politak badira, baita burusoilak ere. Hori bai, peluka jarri dezatela!

Egindako azken oparia?

Amonari eta aitonari bazkaria oso ona dagoela esatea. Beno, baina hori ez da oparia: hori egia da.

Eta jasotakoa?

Estreinaldi egunean Labeaga aretoa jendez gainezka egotea.

Data bat?

Irratia FMn emititzen hasi zenekoa. Sekulako garaipena izan zen.

Neska eta mutil izen bana?

Timoteo eta Mikaela. Gainontzeko aitonen eta amonen izenak ere esan ditzaket, baina hauenak bereziagoak dira.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Hitza esan beharko dut, ala?

Gustuko telebista saioa?

Ez dut telebista asko ikusten. *Funtzioa* eta *Dragoi Bola* asko gustatzen zitzaizkidan.

Bereziki gorroto duzuna?

ETB gorroto nuen, baina orain gehiago. Eta besteetaz zer esan...

Liburu bat?

El Padrino, *El Siciliano*... Mario Puzo idazlea asko gustatzen zait.

Pelikula bat?

La roca, *El odio*, *Las locas aventuras de Robin Hood*...

Abesti bat?

Anestesia taldearen *Kontraesanak* eta Hil baino lehen taldearen *Fuck the police*.

Soinu bat?

Dultzainarena.

Usain bat?

Gosea duzunean bazkaria mahai gainean dagoela dioena.

Janari bat?

Babarrunak.

Ura ala...

Kas Naranja eta urtero egiten dugun patxarana.

Elkarlana

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

+

kutxa

+

ADEGI

+

CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

+

MONDRAGON

+

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

=

gipuzkoa aurrera

Elkarlanean, ilusioak, helburuak eta proiektuak aurrera.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-pribatutik elkarlanean ari gara, indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren gainetik dagoelako.

Construcciones MENDIOLA

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com









Legazpiko Olazabal Institutuaren ondoan
6 chalet adosaturen eraikuntza eta salmenta

Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak

ZUM Edizioak